



Kontabilitatea, maskulinoa ala femeninoa?



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Galdera bera probokatzaila da. Kontabilitatea modu zurrunean ikasi duen honi (neroni) gehiago jakiteko gogoia sartu zitzaion galdera entzun bezain pronto. Kontabilitate finantzarioaren inguruan hausnarketa kritikoa egiteko bide eman zidan Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasle batek egindako Gradu Amaierako Lanaren aurkezpenak. Ikerlana ebaluatzeko epaimahaikide gisa aritu nintzen, eta hasiera batean bateraezinak ziruditen kontzeptuak uztartzeko gai izan zen: kontabilitatea eta ekofeminismoa.

Oro har esan daiteke, kontabilitateak denbora jakin batean enpresa edo erakunde baten emaitzen inguruko informazioa ematea duela helburu. Nolabait, jarduera ekonomikoa islatuz kudeatzaileriei erabakiak hartzen lagunduko dien diziplina dela esan dezakegu. Luca Pacioli matematikari eta ekonomialariak zehaztu zituen, esaterako, balantzearen funtsezko oinarriak XV. mende bukaeran, eta lehenbizikoz, kontabilitatearen izaera duala definitu zen: aktiboa eta pasiboa, enpresak duena (eta zenbakitu daitekeena), eta duen hori finantzatzeko bidea. Oraindik ere kontabilitateko lehen saioetan ikasi ohi den dualtasuna da hau, objektiboa eta hausnarketarako tarte gutxi uzten duena.

Enpresa baten jarduera ekonomikoa ordea, ez da merkatu, kreditu, galera, mozkin edota zorrera mugatzen. Izan ere, herrialde bateko aberastas-

Enpresetako jardueren
tokiko ekosistemetan
eta tokiko jendartean
duten eraginaren isla
egitea du helburu
ingurugiro- eta
gizarte-kontabilitatea
deiturikoak

na neurtzeko Barne Produktu Gordina erabiltzeak dakartzan mugak hainbatetan adierazi diren moduan, enpresa baten jarduna ingurumen eta gizartetik at egongo balitz lez kontabilizatzeak ere baditu bereak. Nola islatuko lirateke enpresa baten kontabilitatean ingurumenari egindako isurketak edota kutsadura? Nola kontabilizatu enpresako langileen artean egon daitekeen soldata arrakala? Zein izan daiteke lan-praktika eta enplegu duinaren adierazlea? Nola eman enpresa barnean egon daitezkeen berdintasun edo diskriminazioen berri? Hausnarketa hauek ez dira berriak, eta azken sei hamarkadetan lan teorikoez gain, ekimen ugari jarri dira martxan gai honen inguruan. Enpresetako jardueren tokiko ekosistemetan eta tokiko jendartean duten eraginaren isla egitea

du helburu ingurugiro- eta gizarte-kontabilitatea deiturikoak.

Gaiak luze eta zabal aritzeko parada ematen du. Izan ere, ezin ahaztu zenbakitzea zaila den oro susmopean egon ohi dela. Ekonomiako kutxa zurrunetik haratago begiratzeak errealitatearen konplexutasuna onartzera behartzen gaitu, eta zentzu honetan, gainbegiraketa teoriko zorrotza egiteaz gain, lan enpiriko txukuna egin zuen fakultateko ikasleak. Bikaineko kalifikazioa lortzeaz gain, pentsamendu hegemonikoa zalantzan jartzearen ausardia ere azpimarratzekoa izan zen, eta ikerlana aldizkariren batean argitaratzera animatu genuen epaimahaikideok.

Pozgarria izan zen niretzat irratian gaiaren inguruan solasean entzun nitueanean, bai ikaslea eta bai lanaren gidaritza egin zuen irakaslea ere. Egindako lanaren garrantziaren onarpenaz gain, gaiak interesa pizten duenaren seinale izan zen. Halarik ere, elkarrizketan aipatu zuten, "artikulu zientifikoa ez izatea" argudiatuz baztertu omen zuen aldizkari zientifiko batek eurek bidalitako lana. Artikuluak atzera botatzea oso ohikoa da mundu akademikoan, baina arrazoiketa zinez bitxia da. Hain aldakorra zaigun errealitate honetan, gizarte zientzietatik iraunkortasunari begira zorrotzasunez egindako ekarpenak, ez al dira ba zientifikoak? Agian, titulua probokatzaila egin izan zen zientziaz hitz egiteko. ●